

DIRU-ITURRIAK

ZitzTool zerbitzua aurrera eramateko, inbertsio bat egin beharko da eta horretarako, lehenik, mailegu bat eskatu beharko litzateke. Diru hau, banku bati eskatuz edo beste enpresa batekin elkartzuz lor daiteke. Lehenik, bankuari mailegua eskatuko zaio eta aurrerago, zerbitzuaren tresnak eskuratzen laguntzen duen enpresa batekin aliantza sortu. Eskatutako dirua, zerbitzuaren irabazietatik baliatuz bueltatuko da, zehaztutako epe baten barruan.

Zerbitzua aurrera eramateak hainbat gastu suposatuko ditu. Hasteko, beharrezkoak diren kutxatilak, poltsak eta xurgagailuak erosiko dira, eskatutako maileguaren zati baten laguntzaz eta egindako aliantza kontuan hartuz. Poltsak Txinatik erostea erabaki da, bertatik esportatzea oso merkea delako, beraz diruaren %0,2-a erabiliko da horretarako. Kutxatilak lortzeko, *taquillas-sim* enpresarekin kontaktuan jarri eta kutxatilak zerbitzura egokitzeko adostu da. Horretarako, diruaren %30,46-a erabiliko da. Xurgagailuak aldiz, guk diseinatuko ditugu eta *Elekrolux* markakoak izango dira; honek kostu handia izango du, beraz, %30,46 erabiliko da, hau aurrera eramateko. Zerbitzua irekitzeko, publizitatean %0,19 gastatuko da, jendeak, *ZitzTool*-en inguruan informazioa jaso dezan. Azkenik, %1,06 gordeko da aurreikusi gabeko gasturen bat izanez gero edo konponketa bat egin behar ezker. Hau guztia kontuan izan eta kalkulua eginda, zerbitzua erabiltzeagatik, hileroko 15€ kobratuko dira.

Hasiera batean, aurrezkiekin eta ingurukoen laguntzaz baliatuko gara produktuari hasiera emateko, bankuari eskatutako maileguaz gain. Lortuko diren irabaziak, mailegu hori itzultzeko erabiliko dira. Maileguak, interes batzuk edukiko ditu, hau da, bankuak tasa bat ipiniko du dirua emateagatik. *La Caixan* esate baterako, %2,3ko interesa eskaini digute eta ikusi dugu, gaur egungo egoera kotuan izanda eta enpresa berri bat dela, oso kopuru interesgarria dela. Gainera, bankuak berak, mikro-kredituak eskaintzen ditu ekintzailetasuna bultzatzeko “*Obra Social La Caixa*” proiektuak aurkezten duen moduan. Dirua bueltatzeko epea hamar hilabete izango direla adostu da. Hau guztia dela eta, *ZitzTool*-eko bazkideek, ez dute

soldatarik izango lehenengo urtean irabaziak bankuari bueltatzeko dirua izango direlako. Denbora aurrera joan ahala eta enpresa hedatzen doan heinean, soldatak agertu eta zehaztuko dira.